

Normandoak Bizkaiko Golkoan

Deia, 1983-08-04.

Euskaldunak berandu sartu ziren gero ausardi handiz gurutzatuko zituzten itsasoetara.

Barandiaranek hain nagusiki erakusten dizkigun prehistoriako seinaleak diotenez, orain dela 10.000 urte hasi ziren euskaldunak itsas-ertzean lehenengo muskuiluak jaten; urontzi edo hastapeneko hasi-masiak berandu egiten dituzte, eta gaur arte irau duen horietako ale bakarra Adur ibai ondotik atera eta gaur Miarritzeko Museoa dago: enborra zulatuta pieza bakarrean eginikoa da.

Baina gauza bat da uraren gainean doi-doi ibiltzeko gai izatea, eta oso bestea itsastatzeko behar diren teknikak menderatzea. Hau ez da denbora historikoa arte gertatzen: erromatarrak Galiara sartzen direnekoan eta Gipuzkoan bertan Oiartzungo burnia itsasoz eramaten hasten direnekoa. Itsasoz lehendabizi egindako trafiko hau kabotaiakoa da, hurbileko portuz portu egina, kostaldeko erreferentzi puntuak galdu gabe. "Lapurdun", (Baiona), VIgarrenean garrantzia badu garai honetan gotorlekuz indartua zegoen. Nautikako iraultzak egingo du gizona itsasoaren nagusi, hemendik sortuko da gizakiak itsasoarenganako duen zentsu berria, eta hau ez da gure kostaldean sortuko Iparretik gizon berriak agertu arte.

Iparreko gizonak, Eskandinabiatik jaitsi zirenak izan ziren.

Eskandinabia, Europako iparrekialdean Baltiko eta Iparreko itsasoaz mugatuta dauden penintsuletako herriak, Suedia, Norbegoa, Danimarka eta Finlandia dira.

Herri haietan IVgarrenean sortutako borrokak bultzatzen zituzten beherantz, lur berri bila.

Atlantikotik Galietara heldu zirenean hiru bide nagusi hartu zituzten. Caro Baroja digunez:¹ bat, Iparrera, bestea erdira eta hirugarrena guri dagokiguna, hegoruntz; honuntz datozenak taldeka datoz, nonbait, eta ez gehiegi.

Hemen behean ez dute Ingalaterrara eta Normandiara dihoazenak bezala jokatzeko; herrialde horietara heltzen direnek bertako hizkuntza ikasten dute eta herri bakoitzeko erlijio eta instituzioetara moldatu dira; behar bada berez beste gizabideko taldeak direlako; beherago, honuntz, datozenak bestalde, piraten jokaera dakarte: XIgarrenean apurtzen dituzte Gaskoniako hiri guztiak baita Biona ere.

XIgarrenean ageri diran Iparraldeko gizon horiek, Normandotarrak bezala ezagutuak, dakartzkite untzigintzan egindako aurrerapenak; hemen burniz egindako erremintekin emango zaio gero untzigintzari bultzada handia.

Eta euskalduna hasten da lehenengo aldiz itsaso barrura kemen handiarekin sartzen.

¹ *Itsaskaria*, Petronor, Bilbo, 1978.